

Noaqua!!!

H A M A B O S T E K A R I A

1997ko azaroak 14

Usurbil, 30-Zenbakia



**Herriko hitza
biltzen**

JAIOTZAK

Narrea Alustiza Egileta
(1997-10-28)
(Kaleberri)

Eneko Eizagirre Hueta
(1997-11-05)
(Kaleberri)

HILDAKOAK



1997-10-29
Gabriela alkorta Lizargarate
90 urte
San Inazio kalea



1997-10-29
Xelestino Agirre Tolosa
82 urte
Aginaga

EZKONTZAK

Kontxi Karbaieda (Kaleberri)
eta
Iñaki Aranguren (Berriz)
(1997-10-25)



Jon Loidi (Txokoalde)
eta
Garbiñe Astiazaran (Kalezar)
(1997-11-08)

MEZA ORDUAK

Igande edo jai bezperatan

18.30etan Kalezarko monjetan
19.30etan Aginagako elizan
20.00etan Usurbilgo parrokian

Igande edo jai egunetan

9.30etan Zubietako elizan
10.30etan Aginagako elizan
10.30etan Urdaigako ermitan
11.30etan Usurbilgo parrokian
12.30etan parrokian. Erdaraz

EUSKO TRENEN TREN ORDUTEGIA

ASTEGUNETAN

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
06.12	06.27	06.42	06.09	06.26	06.39
06.42	06.57	07.12	06.42	06.57	07.12
07.12	07.27	07.42	07.12	07.27	07.42
07.42	07.57	08.12	07.42	07.57	08.12
08.12	08.27	08.42	08.12	08.27	08.42
08.42	08.57	09.12	08.42	08.57	09.12
09.12	09.27	09.42	09.12	09.27	09.42
10.12	10.27	10.42	10.12	10.27	10.42
11.12	11.27	11.42	11.12	11.27	11.42
12.12	12.27	12.42	12.12	12.27	12.42
12.42	12.57	13.12	12.42	12.57	13.12
13.12	13.27	13.42	13.12	13.27	13.42
13.42	13.57	14.12	13.42	13.57	14.12
14.12	14.27	14.42	14.12	14.27	14.42
14.42	14.57	15.12	15.12	15.27	15.42
15.42	15.57	16.12	15.42	15.57	16.12
16.12	16.27	16.42	16.12	16.27	16.42
16.42	16.57	17.12	16.42	16.57	17.12
17.12	17.27	17.42	17.12	17.27	17.42
17.42	17.57	18.12	17.42	17.57	18.12
18.12	18.27	18.42	18.12	18.27	18.42
18.42	18.57	19.12	18.42	18.57	19.12
19.12	19.27	19.42	19.12	19.27	19.42
19.42	19.57	20.12	19.42	19.57	20.12
20.12	20.27	20.42	20.12	20.27	20.42
21.12	21.27	21.42	20.42	20.57	21.12
22.12	22.27	22.42	21.12	21.27	21.42
			22.12	22.27	22.42
			23.12	23.27	23.42

ASTEBURUTAN

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
07.42	07.57	08.12	08.42	08.57	09.12
08.12	08.27	08.42	09.12	09.27	09.42
09.12	09.27	09.42	10.12	10.27	10.42
10.12	10.27	10.42	11.12	11.27	11.42
11.12	11.27	11.42	12.12	12.27	12.42
12.12	12.27	12.42	13.12	13.27	13.42
13.12	13.27	13.42	14.12	14.27	14.42
14.12	14.27	14.42	15.12	15.27	15.42
15.12	15.27	15.42	16.12	16.27	16.42
16.12	16.27	16.42	17.12	17.27	17.42
17.12	17.27	17.42	18.12	18.27	18.42
18.12	18.27	18.42	19.12	19.27	19.42
19.12	19.27	19.42	20.12	20.27	20.42
20.12	20.27	20.42	21.12	21.27	21.42
21.12	21.27	21.42	22.12	22.27	22.42
22.12	22.27	22.42			
			Zarautz	Usurbil	Donostia
			08.42	08.57	09.12
			09.12	09.27	09.42
			10.12	10.27	10.42
			11.12	11.27	11.42
			12.12	12.27	12.42
			13.12	13.27	13.42
			14.12	14.27	14.42
			15.12	15.27	15.42
			16.12	16.27	16.42
			17.12	17.27	17.42
			18.12	18.27	18.42
			19.12	19.27	19.42
			20.12	20.27	20.42
			21.12	21.27	21.42
			22.12	22.27	22.42
			23.12	23.27	23.42

Zer irizten?

Noaua!

Usurbilgo hamabostekaria

Argitaratzailea: Noaua!
Kultur Elkartea. Kale Nagusia,
37 - 20.170 USURBIL (Gipuzkoa)
Tlf. eta faxa (943) 36 03 21.
e-mail:
mandio@redestb.es

Zuzendaria: Olatz Altuna.
Kazetariak: Ainhoa Azpiroz,
Idoia Torregarai, Josu
Aranberri, Garikoitz Udabe.
Kolaboratzaileak: Pedro Mari
Matxain, Ines Kamino, Leire
Atxega, Iñaki Labaka, Iratxe
Begiristain, Amagoia Mujika,
Xabier Arregi, Pako Agudo,
Alfontso Vidal, Nieves
Aranburu, Luis Aranalde, Zalao
Arnaiz, Maribi Arrospide eta
Agurtzane Solabarrieta.
Administrazioa: Arantxa
Usarralde, Aitor Pikabea eta
Nerea Kamino. **Eredakzio
Kontseilua:** Olatz Altuna,
Garikoitz Udabe, Jose Jabier
Furundarena, Iñigo Azpiroz,
Idoia Torregarai, Josu
Aranberri, Ainhoa Azpiroz.

Maketazioa eta diseinua:
Susana Martin eta Aitziber
Elortza. **Argazkia:** Joxe Antonio
Labaien. **Informatika:** Pili Liza-
so. **Banaketak:** Mertxe Jimenez,
Txelo Vidal eta Iker Muguruza.
Elektrikaria: Iñaki Salsamendi
Sukaldaria: Joxe Mari Sarasola,
Tirada: 2.200 ale


Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza,
Industrialdea 1 - 2, 20.160
Lasarte-Oria.

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

AZALA: Hitza Jasoz taldeko paraide batzuk: Nikolas Izeta, Iñaki Agirresarobe, Joxe Leon Arriaga eta Iñaki Urkia.



35 orduko lanordua?

Jose Lorenzo

Langilea

Langileon artean gai berria dudugu hizpide azken hilabeteetan: 35 orduko lanordua. Proposamen berriaren arabera egungo orduak 35era jaitziko lirateke. Neurri honen helburua lana jende gehiagoren artean banatzea da, eta langabezia dagoenari ere bere aukera ematea.

Baina gauza bat proposamena da eta beste bat hori gauzatzeko eta aurrera eramatea. Eta hor dago gakoa. 98ko hauteskondeei begira eskaparate polita dela iruditzen zait, baina ez dakit noiz iritsi garen hori betetzera. Emaitzak oso urrun ikusten ditut. Sindikatuek aurrera eramango duten borroka luze eta haundia da, baina ez dakit aurrera aterako den. Izan ere, enpresariari ez zaio interesatzen. Horregatik, sindikatuek gogor egingo diote, baina ez du funtzionatuko.

Jubilazioarekin eta aurrejubilazioarekin ere gauza bera gertatu zen. Teorian jendeak lehena gozten dio lanari eta hoi lekuan gazteak sartzen dira. Baina praktikan ez da horrelakorik gertatzen. Jubilatatu bai, baina langile berriak sartu ez.

Neurri berri honekin lege dekretua egingo dute, baina lege guztiek beren tranpak izaten dituzte, eta honek ere bai. 35 ordu egingo ditugu lan,

baina horrez gain, lana dagoenean ordu gehiago sartzeko eskatuko digute. Gero, ordu horien ordainetan opor egun gehiago emango dituzte. Sindikatuek ordu estren kontra dandenez, neurri hau hartzen dute enpresariak.

Gaur egun jendea oso eroso bizi da eta berehala onartzen du hori. Lan kontratu finkorik ez dutenak, berriz, ezezkoa esaten badute kalean dira berehala.

Bestalde, ordu murrizketa honekin gaur egungo antolaketak guztia aldatu egin beharko litzateke. Ezingo lirateke oraingo txandak mantendu. Zer egin behar da, goizeko txandakoak 13.00ak arte eta arratsaldekoak 14.00etan sartu? Eta bitartean? Hiru txandako sistemak ez du balio. Tailer txikietan errazago moldatuko lirateke aldaketara, baina produkzio enpresetan ez.

Orduak murriztea erabaki eta lege dekretua onartzen bada ere, ondoren lantegi bakoitzean enpresariak eta enpresa komiteak negoziatu beharko dute. Printzipioz sindikatuetan dauden langile guztiek berehala onartu beharko lukete lanorduen murrizketa. Hori gertatu da, LAB, ELA, UGT eta CCOO, guztiak alde agertu dira. Baina orain dator zailena, hori aurrera ateratzea. Hor ikusten dut nik arazorik haundiena.



Usurbilgo Udalak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

363
bazkide ditu Noaua!k.
Zu ere egin zaitetz
bazkide



Gazteok bakerik nahi al dugu?

Zu, gazte, konturatu al zara Euskal Herrian ez dagoela bakerik, ez dagoela demokrazia-rik, Herri Batasunako mahai kideak epaitu dituztela, gatazka politiko baten barnean bizi zarela jaiio zinenetik? Eta gatazka hau politikoa izanik, irtenbideak ere politikoa izan behar duela?

Orain, momentu honetan, ate bakarria dago irekia bakearentzat Euskal Herrian. Hain zuzen ere E.T.A erakunde armatuak 1995eko apirilean plazaratu zuen "Alternatiba Demokratikoa". Bake proposamen hau plazaratzeagatik epaitu dituzte H.Bko mahaikideak.

Eta zuk, bakea ezagutu ez duzun horrek, ez al duzu bakerik nahi? Ez al diozu inoiz galdefu zure buruari Irlanda edo Palestinan bai, eta hemen ez, zergatik? Hori denon esku dago. Alternatiba Demokratikoa da bide bakarria. Defenda dezagun!!

Ez dakizula zertan datzan? Ba

hementxe daukazu. Irakurri eta eman bueltak buruari.

1.- Euskal Herria aintzakotzat hartzea: Autodeterminazio eskubidea eta lurraldeen batasuna aintzakotzat hartzea.

·Autodeterminazioa ez da jarraia politikoa bat, herri bat garen aldetik zor zaigun eskubide demokratikoa baizik. Euskal Herriak askatasun osoz bere etorkizuna erabaki behar du.

·Euskal Herria aintzakotzat hartua izan dadin egungo lurralde zatiketa gainditu beharra dago, Euskal Herria nola eratu, eta antzekoak euskaldunok erabakiko ditugu.

2.- Euskal Herrian irekiko den prozesu demokratikoaren emaitza errespetatzea:

·Herriaren hitzari ezin mugarik jarri. Prozesu honetan ateratzen den emaitza Estatu Espainolak errespetatu egin beharko du.

·Prozesu hau bideratzeko gutxieneko baldintza herritar guztiek partehartzea izango da, inongo presiorik jasan gabe. Beraz, ezinbestekoa izango da amnistia orokorra lortzea, preso guztiak kalera irten eta ihesi joandako guztiak itzultzea.

·Era berean, ezinbestez, neurriak hartu beharko dira indar armatu espainolek prozesuan esku har ez dezaten.

Zer, bakea nahi duzu edo ez duzu nahi? Ez dago beste aukerarik: bai ala ez.

Nahi baldin baduzu ez da nahi-koa baiezkoa esatea, guztion lana da bakea lortzea. Pasibitatea konplizitatea da. Beraz, bakea nahi duen hori etor dadila gurekin aldarrikatzea. Astelehenero, arratsaldeko 20.00etan, errotondan, eta beste egunetan egin ohi diren mobilizapenetara.

Usurbilgo Jarrai.

Txirrikitutik



1995. urtean zehar Udarregi bertsolariaren heriotzaren mendeurrena ospatuz, hainbat ekintza egin ziren Usurbilen. Bi urte berandua-go, urteurrenaren logotipoa azaltzen den plaka bat ezarri berri du udalak frontoiaren ezker paretaren atzean.

Pintxo eta bokata goxo-goxoak

Eguzkitza

GALARRA
GARRAIO

* LUR ONGARRIAK
* ZABOR BILKETA
* ZISTERNA BEREZIAK

☎ 37 01 46

SERIGRAFIA
TANPOGRAFIA

OSU
Ugaldea poligonoa 36 - 2º - Esk
Usurbil - Gipuzkoa

☎ 37 19 54

INDUSTRI ETa
IRA GARKI SERIGRAFIA
KAMISETEN INPRIMAKETA



MARIA JESUS ALKORTA ZABALA

Agerre baserrian jaio bazen ere, bere bizitzako urte gehienak Txokoaldeko Portu baserrian bizi izan ditu 66 urteko emakume honek. Umore handikoa, bere ingurukoek lanari diola afiziorik haundiena diote.



Nolatan etorri zinen ba Portu baserrira?

23 urte nituela etorri nintzen hona, "engainatuta" ekarri nindutela esan daiteke, ezkondu nintzenean, alegia.

Eta Agerre zure baserriko garaia nola gogoratzen duzu?

Baserrian ,badakizu, lan egin behar da gogor. Ganadua dela, baratza dela... beti dago zeregina. Gutxien gustatzen zaidana behiak jeiztea zen, oso lotua da. Behiek beren orduak dituzte eta errespetatu egin behar dira. Orain behintzat ez ditugu eskuz jeizten, diferentzi ederra! Hori bai, gaztetan, eta hain gaztea ez nintzenean ere betidanik gustatu izan zaitfruta biltzera zuhaitzetara igotzea.

Generoa eta esnea saltzera ere joaten omen zinen Donostiara...

Eta orandik ere joaten naiz, Jainkoari eskerrak. Hasieran amarekin joaten hasi nintzen, baina gerora nik bakarrik moldatu behar izan nuen. Topoko tren geltokian edota San Martin inguruan saltzen nuen, eta orain baino errazago saltzen zen orduan! Ez zegoen orain adina konpetentziarik. Eta orain ere, daukaguna saltzera joaten naiz, seme-alabak ez dute joan nahi eta!

Festetara ere aterako zinen, ezta?

Guretzat festa Usurbilen izaten zen, Angelen ttunttuna eta Inaxioren danbolinarekin. Baina ni inoiz ez naiz dantzazalea izan, berriketan gehiagoritzen nintzen. Usurbilez gain, Irubidera eta hemendik barrena Lasartera joaten ginen, eta gero txintxo -txintxo etxera. Orduan gainera dena oinez egin behar izaten genuen, ez zegoen orain bezala kotxerik edo antzekorik gure garaian.

Eta auzoko festetara irteten al zineten?

Usurbil, Zubieta, Sanesteban eta San Praixku festetan ere ibiltzen ginen gu. Gainera, etxetik festetarako bidea zapatila zaharrekin egiten nuen, eta gero hauek bidean utzi, eta berriak jartzen nituen festarako. Etxerakoan berriro zaharrak hartu eta martxa egiten genuen. Hori bai, ez da orain bezala; orduan "amaikuako" (zortziretako) etxean egon behar izaten genuen. Hala ere, etxerako bidean inoiz ez zitzaizkigun falta izaten "laguntzaileak".

Langile amorratua omen zara...

Bizitzan zehar hori erakutsi eta hori egin izan dut beti. Gainera, Jainkoak osasun ederra eman dit eta horrela gauden birtartean, aurrera. Etxean edo baratzan beti dago zeregin. Besterik ez dudala egiten dio alabak.

Baina deskantsurako ere hartuko duzu denbora.

Bai, asko ez gara ateratzen, baina Gure Pakea Zahar egoitzak antolatzen dituen irteera guztietara joaten gara egun pasa. Primeran pasatzen dugu gainera. Santo Tomasetan ere ezinbesteko buelta ematen dugu Donostiatik urtero. Txerria ikusi, Alkaldenean urdaiazpiko bokadiloa hartu, eta ondoren txokolata txurroekin jatera joaten gara. Hori tradizioa izaten da.

Estropadak ere gustokoak omen dituzu.

Bai, nobiotatik joaten naiz Kontxako estropadak ikustera, eta San Juanen aldekoa naiz. Pelota ere izugarri gustatzen zait. Berez telebistari ez diot kasu haundiegirik egiten, baina pelota partiduak ahal dudanean behintzat ikusten ditut. Retegizalea naiz. Gazteago nintzenean ere frontoietara joatea asko gustatzen zitzaidan, eta afizioa oraindik mantendu dut.

Guzt gaitzirik gogorrik

- Zukua
 - Kafesnea
 - Kruasana
 - edo**
 - Zuku naturala
 - Kafesnea
 - Tostadak, mermelada eta gurina
- 350 pta**



TABERNA

Abenduaren 1etik aurrera goizeko 7 t'erdietan irekiko dugu

Auzo kolektibaren merendiak

Txokolata eta txurruak

300 pta.

SANTUENEA



Agurtzane Solabarrieta

Uholdeen ondorenak pil-pilean

Azkenengo uholde larriak direla eta, **Santueneako zenbait bide eta txokoalde bere osotasunean konpondu gabe** daude oraindik. Honen adibide argi eta garbia dugu **Santueneatik Urdaigara** doan **bidea**. Bertan, lurjauziak izan ziren ekainaren 1ean eta horren ondorioz errepidean estugune arriskutsu bat sortu zen. Kotxeak, bizikletak, jendea... mugimendu haundiko bidea izanda, auzotar askoren kezu bihurtu da bihurgune haundia baino lehen dagoen eremua. Bidearen zati hori udalak ezartzen dituen konoen bidez seinaleztatuta egoten den arren, **kono horiek desagertu** egiten dira. Batzuetan umeek hartzen dituzte, besteetan haizeak eramaten ditu, eta kono horiek kentzeko noiz jarriko zain egoten denik ere bada,



gero kotxean sartu eta eramateko.

Begibistakoa da, beraz, Santueneatik Urdaigara joateko bidean sortzen den **arriakua**. Auzotarrek eremu hori konpontzea besterik ez dute eskatzen, are gehiago azkenaldi honetan igarotzen diren kamioi kopuru haundia ikusita.

ATXEGALDE



Zalao Arnaiz

Gas hodiak ezartzen hasi dira

Azkenean **hasi dira** falta ziren kaleetan **gasaren hodiak ezartzen**. Lan hauek auzoko zati batean egin zituztenetik hilabete ugari pasa dira. Zergatik egon dira horrenbeste denbora ezer egin gabe? Dirudienez, lan hauek egiteko aurkeztu zen aurrekontuaren arabera, gasa Atxegaldeko lehenengo erdi-rarte bakarrik sar zitekeen eta denborarekin beste erdia piskanaka-piskanaka egitekotan ziren. Egoera hau ikusita, **ikamika ugari** egon da auzoan. instalatzaileek gasa berehala ezartzea lortuko zutela hitz eman zuten arren, auzotarrok ez dugu gai honi buruz ezer gehiago jakin.

Zorionez, urak bere bidea hartzen duen modura, azken **hiru asteetan lanean** hasi dire-

la ikusi dugu, eta egia esan, lanak abiada bizian doaz aurrera. Zorte pixka batekin, epe laburrean lan hauek amaituta ikusiko ditugulakoan gaude. Ea ba horrela gertatzen den.

TXOKOALDE



Iñaki Labaka

Aparkalekua egiteko lurrak erosi ditu udalak

Esamesak egi bihurtu dira azkenean. **Txokoalden aparkaleku berria egingo dute**. Aurreko alean esan nuen mugimendu pixka bat bazegoela kontu honekin eta bete-betean asmatu nuen. Udalak aparkaleku berria egiteko lurrak erosi ditu.

Trenbidearen igarobidetik erriberako bidea bitartean



Kirolak eta gazteentzako moda
Atxegalde, 10 Tel. 36 65 42

Eros ezazu herriko dendetan

GONZALEZ EKHORZKETAK



Era guztietako zerbitzuak
EGUNEKO 24 ORDUETAN
Olarriondo, 5 - 8
☎ 36 21 63

ejiran

bide berria eraiki ahal izateko, proiektua onartu baino lehen, Illunbe sagardotegikoak baldintza bat jarri zuen. Bere terreneak uzteko aparkalekua egitea eskatu zion udalari. Gainera, kotxeak uzteko leku falta nabaria dela ikusita, udalak **2000 metro karratuko lurzattia** erosi dio Zatarain familiari. Aginagatik gatozela, zubia pasa eta eskubitara dagoen lurzatian egingo dute aparkalekua, Illunbe sagardotegiaren parean. Guztira **60 plaza** inguru izango ditu aparkaleku berriak. Ea ba, laister egiten diguten aparkaleku berria!

KALEBERRI



Ines Kamino

Eserleku berriak ekarri eta zaharrak eraman

Frontoia ez da lehengo. Eserleku zaharrak falta dira. Horrenbeste urtetan usurbildarren ipurdiak jasan dituzten eserlekuak kendu eta berriak jarri dituzte. Berriek lehengoak baino txikiagoak diruditen arren, bestearen antzekoak dira, guztira **lau solairu dituzten bi grada jarri baitituzte**. Eserleku zaharrak, berriz, joan

den urriaren 8an eraman zituzten **Añorgara**. Hauek kamioian jartzerakoan ikusmin handia izan zen frontoian. Hemendik aurrera Añorgako frontoian ikusiko ditugu orain arte Usurbilgo frontoian egon diren eserlekuak, bertan, herri lanean konpontzeko asmoa baitute.



Bestalde, azken bi asteburuetan frontoi inguruan egon den mugimendua aipatzekoa da. Azaroaren lehen egunean, **eskulangintza azoka eta erakusketak** jende ugari erakarri zuen frontoi aldera. Usurbilgo artisten lanak ikusteko aukera izan genuen santu guztien egunean. Bastoiak, keramika piezak, egurrezko eta harrizko tailak.. denetarik ikus zitekeen.

Hurrengo asteburuan, berriz, **dantzaldia** izan zen. Zuzeneko diskoa grabatu berri duen Akelarre taldearen doinuek alaitu zuten igande arratsaldea. Jende ugari bai, baina dantzan izerdia atera zutenak ez ziren asko izan. Azken urte hauetan dantzarako griña itzaltzen ari dela garbi ikusi zen, izan ere, frontoia ia hutsik zegoen momentu batzuetan. Ea ez den berdina gertatzen Alaitz eta Mainerrek azaroaren 23an eskainiko duten erromerian. Hala izan dadila!

ZUBIETA



Xabier Arregi

Jende ugari errebote txapelketaren finalean

Zubieta errebotearen hiriburu izan genuen joan den azaroaren 2an. **Endika Abril errebote txapelketako azken partidua sortu zuen ikusmina handia** izan zen eta 300 pertsona inguru gerturatu ziren Zubietako plazara. Errebote giro polit eta jatorrean, iparraldeko bi talde izan genituen aurrez-aurre. Baiona eta Uztaritzeko taldeek ikuskitzun bikaina eskaini zuten han bildutako jendearen gozamerako. Azkenean **Baionarrak garaile**, 13-8. Honela bada, bigarren urtean jarraian garai-pena eskuratu du Baionako AVR. Bayonnais taldeak.

Bezperan, gure taldeak ez zuen Gipuzkoako txapelketa irabazteko inongo aukerarik izan. 13-0 galdu genuen Billabonako taldearen aurka. Aurrerantzean, gogor entrenatzen jarraitu beharko dugu.



MAHUKA



GAZTE DENDA

Módako arropak neguaren atarian

Etxebeste kalea,3 - Tlf. 36 11 06

ORBELDI

MARKEL OLAIZOLA
ASEGURU AGENTEA / Zbk. 200009



GENERALI
Aseguru Konpainia

Mota guztietako Aseguroak zure zerbitzurako

Aritzeta, 1 Tlf: (943) 37 18 07
20170 Usurbil (Gipuzkoa)

H erorrek esan



Imanol Goikoetxea

Eguzkitza

Niretzat hori ez da konponbidea; ez dago horren arabera. Niretzat jubilazioa aurreratu beharko litzateke gazte jende gehiago kontratatze-ko.



Idoia Kerejeta

Eguzkitza

Niretzat irtenbide hori ondo dago, horrela jende gehiagok lan egingo bailuke. Horregatik, ordu estren aurka nago, izan ere, jende asko dago kalean eta zerbait egin behar dela uste dut.



Ainhoa Andino

Santuenea

Noski baietz, dudarik gabe. Ni orain langabezian nago, baina oso ondo iruditzen zait. Gero eta jende gehiago dago kalean. Hala ere, ordu estrak egiteko aukera daukanak ere aprobetxa dezala.



Ramon Zubeldia

Kaleberri

Noski, baina gaur egun enpresek beste jarrera bat dute, eta horregatik etorri da hemen oker handia gazteentzat. Izan ere, enpresek ez dute kontratu berriak egin nahi.



Domi Lopez

Olarriondo

Bai. Denentzako banatu behar da, bestela, batzuek asko eta besteak ez dute ezer. Ordu estrena gaizki iruditzen zait, hauekin, beste lanpostu batzuk sortu baitaitezke.



Txaro Orella

Bizkarre

Aldekoa naiz. Nire kasuan tabernan egunean 16-18 ordu aritzen nintzen lanean. Orain, berriz, bost ordu egiten ditut eta primeran nago. Uste dut guztiok daukagula eskubidea lan egin, soldata bat jaso eta bizitzeko. Izan ere, lanik egiten ez duenak ezin du bizi, ez dago dudarik.



Emilio Barcena

Olarriondo

Nik egiten dudan lanetik asko utziko nuke beste batek egiteko. Argi daukat hori. Ordu estrik, berriz, ez dut nahi ezta bat ere. Garrantzitsuena lana banatu eta denok jateko izatea da. Ez batzuek dena eta gehienak gutxi dutela egotea.



Yolanda Arrieta

Kaleberri

Bai, horixe baietz. Gainera, nire kontura lan egiten dut eta aspaldi nabil pentsakera horri jarraitzen. Beraz, guztiok hori egingo bagenu, onena izango litzateke. Bestetik, ordu estrak osasunaren aurka doaz, bizitzen ere ikasi behar da.

xabier
aritegia

- Pintxo aukera bikaina
- Gosari bereziak

Aritzeta, 2 ☎ 36 19 78



TXIRIBOGA
TABERNA

pintxoak, bokatak
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 - Tf. 37 00 13

Andatza
karr ozeria
Gumer Sánchez

Osinalde industrialdea
Errota Berri kalea ☎ 36 36 77
USURBIL

Atxega jauregia alokatzeko subasta berria

Udalak, **Atxega jauregia** alokatzeko oinarriak onartu ondoren, berriz ere **subastara** aterako da erakuntza honen **alokairua**. Azken urteetan jauregia alokatzeko saiakerak ugariak izan dira. Informazio munduan dagoen enpresak, hosteleritza arloko interesatuak... Atxega jauregia alokatzeko asmoa agertu zuten garai batean, baina oinarriak onartu eta gero proposamenik ez zen egon. Orain, hosteleritza arloko interesatu batzuk aurkeztu ondoren, oinarri berriak onartu ditu udalak. 75 urterako alokairua izango da, eta errentamendu kanona 100 milioitan finkatu dute. BOEn argitaratzean, proposamenak aurkezteko 30 laneguneko epea emango da.



Atxegaldeko urbanizazio berria gero eta gertuago

Atxegaldeko **urbanizazioan berritze obrak** adjudikatzeko baldintzak onartu ditu udalak. Joan den azaroaren 11an egin zen ez ohiko plenoan, Eraiki S.L. enpresak idatzitako proiektua onartu zen. Honekin batera, proiektuaren adjudikazioa konkurtsora atera dute eta eraikuntza enpresek proposamenak aurkezteko 26 eguneko epea izango dute. Atxegaldeko urbanizazioaren berritze lanetan aurrekontua **140.851.572** pezetako da eta urtebeteko epean lanek amaituta egon beharko dute. Honenbestez, urtea amaitzerako, Atxegaldeko azpiegitura guztia berritzeko lanak hasita egotea espero du udalak.

Alkatea epaitegitik ihes egin nahian

Joxe Antonio Altuna alkateak ez du Justizia Epaitegira joateko gogorik. Estatu espainiarreko ejerzitoarekin ez kolaboratzeko hartu zen erabakiaren ondoren, epaiketak pilotzen ari zaizkio alkateari. 1995. urtean kolaboratzeari uko egi-teagatik, otsailaren 26an du epaiketa, eta orain, 1996an ez kolaboratzeagatik deklaratzera deitu dute. Deklaratzera joateko bigarren eta azken deia urriaren 30ean izan arren, ez zen joan eta aurten ere **ertzantzak eramango du** Auzitegira. Bestalde, Eudimaren sorrera testua sinatu zuten 16 herrietako alkateetaik bostek deklaratu dute, baina Joxe Antonio oraindik ez dute deitu.

☞ Asteasuain eremu industrialean sagardotegi-jatetxe bat jartzeko asmoa dute. Abrasivas Dogo, Elhuyar etab. dauden zonalde industrialean, estazio aldera dagoen azken lokalean jarri nahi dute sagardotegi-jatetxe hau. Oraingoan, aktibitate espedientea tramitatzen ari dira, eta hori amaitu ondoren udalak ekimen hori aurrera eramateko baimena eman beharko du.

☞ Donostia aldetik Usurbila sartzeko dagoen sarreran semaforoak jarriko dituzte urte bukararako. Kotxeak sartzekoan eramaten duten abiadura haundiaz jabetuta, Bustinzulon, abiadura mantxotzeko semaforoak jartzea erabaki du udalak. Semaforo hauek, Bustinzuloko lanak amaitzerakoan jarriko dira eta aurrekontua 1.377.685 pezeta ingurukoa izango da.


PATRI

JATETXEA

Eguneko bazkariak
eta afariak

Nagusia,6
Tlf 36 27 25

20170 Usurbil
(Gipuzkoa)

Murgintza - Gasa Berokuntza

J. Orbegozo

Bizkarra 1, 1. esk.

☎ 37 29 37 - 36 59 26

TXURRUT

 **Taberna**

San Esteban kalea 1
USURBIL

Tel.: 36 00 80

Herriko Hitzak Jaso nahian

Hitza Jasoz 1996ko uztai-lean jaio zen Euskararen Aholku Batzordeak zuen kezka bati erantzunez. Batzarraren ustez, euskararen ahozotasuna galtzen ari da gure artean; etena dago adineko jendea eta gazteen artean. Horregatik, gure euskara eta istorioak gordezko sortu zen talde hau.

Bertako kideak hil bakoitzeko azken ostiraletan biltzen dira Bota Punttuba Bertso Eskolak Udaregi Zaharrean duen loka-lean. Partaideak den **Iñaki Agirresarobek**, honela azaldu dizkigu taldearen lehen urratsak: "**Nikolas Izeta eta biok hartu genuen hasieran lan honen ardura, eta segituan lagundu ziezagukeen jendearen zerrenda egin genuen. Gu baino zaharragoa zen jendearen beharra genuen lan hau egiteko, garai bateko Usurbil eta jendea hobeto ezagutuko zituzten pertsonak behar genituen. Horrelaxe sartu ziren taldean **Iñaki Urkia, Ebaristo Pikabea, Joxe Torregarai eta Joxe Leon Arriaga**. Gainera, eta udaletxeko bezala **Xabier Pikabea dago**". Guzti hauetaz gain, **Joxe Jabier Furundarena** filologoa eta **Koro Seguiolaren** laguntza ere jasotzen du taldeak.**

Elkarrizketatuak aukeratu

Baina zein da zehazki egiten duten lana? Lehenengo gauza, erroldatik 65 urtetik gorako herritarren zerrenda ateratzea izan zen, eta hemendik, taldekide bakoitzak elkarrizketa bat nori egingo liokeen esaten du, elkarrizketatuen zerrenda osatuz.

Bigarren pausoa elkarrizketatuekin harremanetan jartzea



Hasieran elkarrizketatuak lotsa izaten dute hizketan hasteko. Argazkian, Urdiaga baserriko Fermin Roteta eta Teresa Altuna.

da. "Hau izaten da pausurik-zailena. Bere lagun edo ezagun batekin joaten gara berarengana zertara goazen ondo azaltzeko. Hotz hotzean ezin da joan. Gainera, Euskara Batzordetik ere eskutitza bidaltzen diegu gure asmoa zein den azaltzeko. Hau da, ez dezatela pentsatu pertsona baten kapritxoagatik goazela berarengana. Zerbait serioagoa dela adierazi nahi diegu",

Elkarrizketak grabatzeko grabagailu berezia erosi dute

dio Iñakik.

Elkarrizketatua jakinaren gainean dagoenean, eguna jarri eta elkarrizketa egitea besterik ez da gelditzen. "Elkarrizketa guztiak ondo biltzeko, Joxe Jabier Furundarenak Azkuek egindako liburu batetik atera-

tako galdetegia ekarri zigun elkarrizketetan eredu bezala erabiltzeko, eta halaxe egin dugu orain artean. Galdetegia 50 galderekin osatzen dute, eta gaika sailkatuta dago: sinismena, nekazaritzako tresnak, animaliak, sendabelarrak, ohiturak, erromeriak, eskola... Gero bakoitzak gai bati buruz gehiago hitz egingo du beste batetaz baino". Hala ere, hasierak ez dira oso errazak izaten: "Hasieran, beraiek esateko dutena garrantzitsua ez dela esaten dute, eta beraz, guk hitz egiten hasteko psikologo lanetan ere ibili behar izaten dugu. Lotsati hasten dira, baina gero izugarriko kontuak esaten dizkigute", azaltzen du Iñakik. Izan ere, elkarrizketak oso luzeak izaten dira. Gutxienez bi edo hiru egunetan joan behar izaten dute beraiengana. Batzuek besteko bat ateratzekotan, elkarrizketa bakoitzak bospasei ordu irauten dituela esan daiteke.

Horrelako hizketaldi oparoa

izanik, sorpresa ugariarekin aurkitzen direla adierazi digute: "Aiton-amon bakoitza mundu bat da. Gainera, auzo desberdinetan kontuak zeharo aldatzen dira. Adibidez, Igeldo aldekoak Donostiarekin lotura haundiagoa izaten dute. Aginagarrek, berriz, itsasoarekin... Auzo bakoitzeko istorioak mundu desberdinak izaten dira".

Hasiera batean gizonezkoak ziren elkarrizketatu gehienak, baina piskanaka emakumezkoengana ere joan dira. Hitzza Jasozeko kideek emakumezkoen balioaz jabetu dira:

"Emakumezkoek normalean kontu gehiago izaten dute. Ipuinak, abestiak, etxeko kontuak... ederki dakizkitez. Horretaz gain, euskara aldetik hizkuntza aberatsagoa dute. Hau gertatzen da askotan gizonezkoa etxetik kanpora lanera, soldaduzkara edo gudara joan delako, hau dela eta, bere euskara gehiago "kutsatu" da. Emakumea, aldiz, etxean geratu izan da eta euskara garbiago mantendu du".

Lehen mailako teknologia

Ondare guzti hau goizetik gauera galdu ez dadin, Hitzza Jasoz taldeak argi zuen hasiera batetik lan honetan erabili beharreko materiala lehen mailakoa izan behar zuela. Horregatik, Udalak emandako dirulaguntza grabagailu berezi bat erosteko erabili dute. Zinta normalak erabili beharrean, minidiskak erabiltzen ditu eta, hauen iraupena aurrekoena baino askoz haundiagoa da. Kalitate aldetik ere nabaria da bien arteko aldea.

Izan ere, horrenbesteko balioa eta lana ezin dira utzi galtzen: "Adineko jendearekin lan egiten dugu eta badakigu erlojuaren aurka ari garela. Elkarrizketa hauek bakarrak

Aldatxa baserriko Maria Arozenaren elkarrizketaren zati baten transkribapena

-Katua jaten al zenuten?

-"Oi ezaiazu aipatu. Goatuta katua zala re. Ximoneneako bizi zan Joxpa Inixi, oan bizi dan Doloxen amagiyarreba kozinera, tabernakua, katua ari re eamana izango ziyen, ta jarriya izango zun ark, ta beak proatzia zeatu ez, nazka ematen da ta:

-"Aizan! Euxtaki, erbiya zakanat kazuelan jarriya, proatzia nai niken, neonek proatu ñat, baña etzaian iruitzen ain zea donik, proatuko al liaken nolakua don?"

Ta pusketa atea omen ziyon ta:

-"Eaarra don! Joxpa Inixi, earra do.

Ta handik eunbatzuta esan omen ziyon:

-"Goatze al aiz, aizan, zea, lenguan nola zeatu niñan pusketa proatzeko eman niyan?

-Bai, earra zeon ba.

-Earra al zitxonan, ba?

-Bai, earra zeon. Ezal zenun zuk proatu?

-Ez. Oan esango diñat egiya. Proatzia nazka emate zitxanan, katua unan.

-Katuaa? Ba, earra zeon ba."

dira, eta behin galdu ezkerro, beharbada ezinezkoak dira berreskuratzen. Horregatik, grabazioa ezingo da atera lokaletik. Norbaitek lana etxera eraman nahi badu, minidis-

Elkarrizketak
ordenagailura
pasatzeak ematen
die lan gehiena

katik zintara pasa beharko elkarrizketa, eta horrekin lan egin ahal izango du".

Elkarrizketak grabatu ondoren, lanaren bigarren zatia hasten da: transkribapenarena. Minidiska horietan grabatutakoa ordenagailura pasa behar da. Hitzza Jasoz taldeak lan hau egiteko erabiltzen duen irizpidea hitzak entzuten diren moduan idaztea da. Horregatik Euskaltzaindian lanean dabilen Koro Seguiolarekin harremanetan jarri ziren, lan honetan laguntzeko. Inakiren

esanetan, "transkribatzea izugarritzko lana da. Zeren grabatutako ordu bat ordenagailura pasatzeko zazpi ordu behar baitituzu, gutxi gorabehera. Kontuan hartu, beraz, elkarrizketa bakoitzak bospasei ordukoak badira zenbateko lana duen bakoitzak. Egiten ari garen lan hau borondatezkoa da, eta horregatik, eskertuko genuke laguntza jasotzea. Gai honetan interesatua dagoe-na, gurekin jar daiteke harremanetan".

Etorkizunean, ordea, lan honi erabilpen bat eman nahi zaio. "Bildutako informazio guztiarekin liburu bat egiteko asmoa daukagu, baina oraindik ez dakigu ze egitura emango genioken. Hau da, elkarrizketa guztiak agertzea edo ez, gramatika jartzea... Argi daukaguna da liburu hau jendearentzako erabilgarria izatea nahi dugula. Klean zabaldu eta ikastetxeetan ere erabiliko dena. Izan ere, gure herriko altxorra izango dugue eskue-

Michelingo langileak igandetan lan egitearen kontra

Usurbilgo Michelin lantegiko langile batzordeko kideek joan den urriaren 30ean egindako prentsaurrekoan, lantegiko zuzendaritza eta langileen arteko konponezinaren arrazoiak eman zituzten. 1997ko lan hitzarmena zehazteko harremanak orain dela hiru aste eten ziren, izan ere, langileek igandetan lan egitea nahi du zuzendaritzak eta langileak ez daude hori onartzeko prest. **Mikel Munduate**, langile batzordeko kidearen esanetan, *"motor adarrean iaiztik ari dira igandetan lanean. Honen aurrean, guk epaitegietara jo genuen, eta epaileek arrazoa eman ziguten. Izan ere, igandea sakratua da. Hala ere, zuzendaritzak ez du epai hori errespetatu nahi"*. Honen aurrean, presioa egiteko, langileek neurriak gogortu eta lanuzteren bat egitea ez dute baztertzen.



Aginagarrak nagusi Egin-eko mus txapelketan



Joan den azaroaren 8an enbido eta ordagoak nagusitu ziren **Patri tabernan**. Bertan, **Eginek antolatzen duen Euskal Herriko mus txapelketaren** barnean, Usurbilgo kanporaketa jokatu zen. Guztira 42 bikotek partehartu zuten, 19 Aginagan, 16 Kaleberrin eta 7 Usurbilgo Gazte Asanbladan. Azkenean aginagarrak nagusi. Jokin Atxega eta Iñaki Errastik lortu zuten garai-pena eta Albaro Bruño eta Pakito Orbegozo gelditu ziren bigarren. Hauekin batera, Justo Pulido-Juan Miguel Beristain, Joxe Antonio Murgil-Joxe Mari Larburu eta Josu Arruti- Arkaitz Lizeaga bikoteak sailkatu dira Oialumen jokatuko den kanporaketarako.

Eskulangintza azokan jende mordoa bildu zen

Pasa den larunbatean, hilak 1, **Usurbilgo 3. Eskulangintza azoka eta erakusketa** ospatu zen herriko frontoian. Bertan, landareak, sagarra eta sagardoaren inguruko kontuak, eskulanak, zeramika, harri eta egur tailagintza, ezitia, altzarien zaharberritzea, bibolin-egileak, ukenduak eta beste zenbait gauza ikusi eta erosteko aukera izan genuen. Giroak eta jai egunak lagunduta, jende ugari inguratu zen bertara, eta giro ederraz dastatzeko aukera ederra izan genuen, txistorra, talo, Agiñako piper eta guzti.



ZUMET A MENUAK

(Gutxienez 2 lagunentzat)

- Itsaskientsaladahozber oatrufa zapoz
- Zapoatzangurr ozbeteriketaitzaski saltsaz
- Aspizunapatapur e, onddo eta pikilopiperraz haragi saltsatan
- Etxekoazkenburukoendegustazioa
- Ardo bereziaetakafea

3.200 pta.

TABERNA JATETXEA




ANTXETA

EGUZKITZA, 4
TEL: 37 03 44
20.170 USURBIL



ARRAINDEGIA PELLO



Arizeta Kalea, 1
Tlf 36 21 64
USURBIL



ZUMET A JATETXEA

Txoko alde, Tel.: 36 27 13

INOIZ BAINO JENDE GEHIAGO ODOLA EMATEN

Pasa den azaroaren 3an, astelehena, **60 pertsonak eman zuten odola** Usurbilgo anbulategian. Usurbilgo Odol Emaileen Elkarteak oso gustora hartu du partehartze hau. Izan ere, aurreko egunetan baino jende gehiagok eman baitu odola oraingoan. Hala eta guztiz, elkarteak jende gehiago animatu nahi du odola eman dezan, "azken batean, bizitza emateko beste bide bat baita".



Kale Nagusia bonbero, udaltzain eta ertzainez bete zen joan den azaroaren 6an. Izan ere, Kale Nagusiko 13. zenbakiaren sotoan **sua** piztu zen eta sotoa erre zuen arratsaldeko 6.45ak aldera. Usurbilgo udaltzaintzaren arabera, 82 urteko **Manuel Goenaga** sotoan zegoen kortozirkuito batek **sua** eragin zuen momentuan. Suaren ondorioz, ke ugari sortu zen, eta etxeakoak atera behar izan zituzten. Hala ere, Manuelek sototik irtetzeko arazoak izan zituen, bidean erori egin baitzen. Azkenean, bere kabuz irten zen etxeako atetik eta ez zuen arazo fisikorik jasan. Momentu larriak izan ziren eta etxeakoek laguntzera hurbildu zen jende guztiari eskerrak ematen dizkiote hemendik.

LARRUA TRUK TALDEAN ALDAKETAK

Larrua Truk taldean zenbait aldaketa eman dira. Orainarte batera jotzen zuen **Josu Errenkondok**, "Motza", eta bajuaz arduratzen zen **Jexux Agirresarobek taldea utzi** egin baitute. Hemendik aurrera, Josuren ordean Iñaki Udabe arituko da baterian eta ez dute bajujolerik izango. Aldaketak aldaketa, beraien kontzertuekin aurrera jarraitzeko asmoa ez dute aldatu behintzat.



Pasa den azaroaren 2an, igandea, alkateak eta Aranzadi Zientzia Elkarteak kideek **Agina**gako **Uriberri-Berriko teila labea inauguratu** zuten goiz partean. Uriberri-herriko teileria ustekabeaz azaldu zen iaz obra batzuek egiteko lurrak mugitzerakoan. Ondoren, Aranzadi Zientzia Elkarteak induskatu (eskabatu) zuen eta Udalak eta Foru Aldundiak itxuratu eta txukundu dute. Hemendik aurrera aintzinako altxor hau ikusteko aukera ere izango dugu.



Jakoba Errekondo usurbildarrak eta **Mikel Alustiza Zeraindarrak** "Zerain. Herri txikiak garapena" hitzaldia eskaini zuten joan den azaroaren 4an, Udarregi zaharrean. 232 biztanle dituen Zerain bezalako herri txiki batean, azken urteetan eman diren aldaketak azaltzeaz gain, garapeneren bidean datozen urteetarako dituzten egitasmoak aurkeztu zituzten. Izan ere, 1996an 19000 bisitari pasa ziren Zeraindik.

BARATZA
FRUTADENDA

Aukera zabala
zure eskura

Eguzkitza,4 USURBIL
Tlf. 36 49 81

AGINAGA

Elkarri itsatsitako etxebizitzak eraikitzen goaz

- Lau logela
- Bi autorentzako garajea eta txokoa
- 200m²ko lur saila

Kalitate oneko eraikuntzak - Zuzenean eraikitzailearengandik

Informazio gehiago obretan bertan
edo telefono hauetan: 58 09 66 - 64 39 14

N•U
Ileapaindegia

MISTOA

Solarium, depilazioa,
makilajea eta manikura

Aritzeta 2 - 2 1.A
Telefonoa: 36 19 51

KIROL KOPLA



**Jon
Sarasua**

Ja esan dezaket: nik ere egin dut Behobia Donostia. Ba nuen gogo! Proba honen edertasunaz horrenbeste hitz entzun ondoren sentsazio hori bizi nahi nuen, Behobiatik Donostiara korrika.

Egia esan harrigarria izan zen igandekoa. Behobian 11.000 pertsona eta ni han tartean, "debutante" izanik urduritasunaz gainezka. "Aurrekoak atera dira" ohiu bat aldamenetik, txalo zaparrada... izugarria benetan. Ateratzerakoan korrika egitea ere ia ezinezkoa zen, denak estu-estu, lekurik gabe, baina behin lehenengo kilometroak egin ondoren nire erritmoa hartu eta ttapa-ttapa kilometroak egiten hasi nintzen.

Gaintzuriketa igotzea dela gogorrena esaten zuten denek. Nik lasai-lasai ederki igo nuen. Arnas-estua haundiagoa izan zen Mirakruzeko gainean. Gogorra egin zitzaidan gain hau igotzea, hortxe pasa bainuen gaizkien. Hankak ez zuten erantzuten, neka-neka eginda zeuden. Hala ere, ikusten zegoen jendearen ohiuek hankak zuzpertz egiten zituzten. Izan ere proba hau ikusten hainbeste jende zegoen...

Azkenean, amaitu nuen, bai. Denbora piskat behar izan nuen, baina ez zen nire asmoa denbora ona egitea. Behobia Donostia egitea zer zen bizi nahi nuen. Eta bai bizi ere. Ondo banago datorren urtean ere han izango naiz. Animatu zaitetzazu ere!

37 usurbildar Behobiatik Donostiara

Korrika, korrika, korrika... Behobian hasi eta Donostian amaitu. 21 kilometroko ibilbideari aurre egiten ausartzen dira oraindik usurbildarrak. Aurten errekorra hautsi dugu: iaz 34 usurbildarrek amaitu zuten proba hau, aurten ordea, 37 izan dira Donostiako helmugara iritsi direnak. Hala ere, atzerapauso bat ere eman da aurten: emakumezkorik ez da izan 37 korrikalari horien artean. Ea ba datorren urtean animatzen diren!

SAILKAPENA:

578	KARBAIEDA ETXEBERRIA, JON	1 : 19 : 35
1112	ANGULO ALMEIDA, TOYO	1 : 23 : 47
XXXX	SASIAIN MARTINEZ, IGOR	1 : 23 : 32
1393	EIZAGIRRE ZALDUA, SANTI	1 : 25 : 32
1396	LERTXUNDI AZKUE, KOLDO	1 : 25 : 32
1643	URDANGARIN SALSAMENDI, JOXE JABIER	1 : 27 : 05
1690	UGARTE BALERDI, JUAN MARI	1 : 27 : 17
1964	REZOLA MENDIKUTE, ARKAITZ	1 : 28 : 39
1972	BENGOETXEA UGARTE, JOSE LUIS	1 : 28 : 42
2009	SASIAIN MARTINEZ, PELLO	1 : 28 : 59
2224	LIZASO URKIOLA, JON MIKEL	1 : 30 : 15
2259	MAIZ PAGOLA, IGOR	1 : 30 : 24
2441	MATXAIN ODRIUZOLA, IMANOL	1 : 31 : 32
2617	PALACIOS GARNATEO, JESUS	1 : 32 : 20
2871	HUIZI OLAIZOLA, ENRIKE	1 : 33 : 39
3245	LERTXUNDI GALARRAGA, IGOR	1 : 35 : 15
3350	AZURMENDI HUIZI, IMANOL	1 : 35 : 49
3876	URDANGARIN ZUMETA, PELLO	1 : 38 : 09
4012	BENGOETXEA LOIDI, JON MIKEL	1 : 38 : 52
4031	MARITXALAR ELIZONDO, IBAN	1 : 38 : 57
4052	ALMANDOZ ODRIUZOLA, IMANOL	1 : 39 : 04
4140	AJURIA GARAIGORDOBIL, FELIX	1 : 39 : 24
4264	LERTXUNDI GALARRAGA, IMANOL	1 : 40 : 00
4542	REKONDO ETXEBERRIA, IÑAKI	1 : 41 : 06
5028	SANTIAGO GARCIA, FRANCISCO	1 : 42 : 56
6033	USABIAGA SUKIA, MIKEL	1 : 47 : 24
6410	ALGORTA MAYOZ, JOSE MANUEL	1 : 48 : 52
6514	DEL CAMPO IBABE, UNAI	1 : 49 : 25
6807	CALVO CASTRO, JOSE ANTONIO	1 : 50 : 38
7301	NOGALES, JOSE	1 : 53 : 37
7305	KAMINO MAYOZ, RAMON	1 : 53 : 38
7394	SARASUA, JON	1 : 54 : 10
7638	UNANUE LOPEZ, AITOR	1 : 55 : 33
7698	DEL CAMPO IBABE, IÑAKI	1 : 55 : 47
7982	URRUZOLA IURRETA, JOXE RAMON	1 : 57 : 46
8125	IKUTZA UNANUE, JOXE MANUEL	1 : 58 : 57
8426	LOITI RODRIGUEZ, EDUARDO	2 : 01 : 57



Usurbil Autoak, S. C. L.
Zerbitzu Ofiziala

Zumartegi industrialdea
Aitezarra kalea, 1
Tel.: 36 10 79 Usurbil



Ongi etorri berria zure eskutik!

LABE-TXIKI

Kale Nagusia, 2
Tif 37 33 48
37 09 13
USURBIL

Arrate egoitza: bildu eta ondo pasatzeko txokoa

Arrate Zahar Egoitzari atzean duen mendiak ematen dio izena, eta badira hamar bat urte lehen pausoak eman zituela. Ordutik hona makina irteera eta ekintza antolatu ditu Aginagako "helduentxoentzat". Era honean, elkartu eta denbora ederri pasatzen dute elkarrekin.

Arrate Zahar Egoitzak elizaren alboko eraikuntzan du bere lokala. Lokal hau elizarena da, baina Udalari utzi zitzaion zahar egoitza egiteko. **Agate Rekondo**, Arrateko idazkariak, horrelaxe azaldu digu: "Hasieran frogar bezala bi urtetarako utzi zion elizak udalari lokala, ea proiektua nola ateratzen zen ikusteko. Gainera, soilik zahar egoitza egitekotan utzi zitzaion. Epe hori pasata, gauzak aurrera zihoazela ikusi genuen eta ordutik hona hementxe gaude".

Egoitzak 100 bazkide ditu orotara, baina hala ere jende gutxi da Arratera egunero hurbiltzen dena. Agateren esanetan, aste egunetan gazte gehiago inguratzen da elkartetik bazkideak baino: "Aste egunean jende gutxi hurbiltzen da honera, gehienak gainera, emakumezkoak. Jende gehiena (giznonezkoak) igandetan, meza amaitu ondoren etortzen da hamaiketako egitera. Hala ere, egunero egoitzan sartuta egoten garen talde bat ere bagaude".

Izan ere, egoitzak ekintza

ugarri antolatzen ditu urtean zehar. Horietatik arrakastatsuenak irteerak izan ohi dira. Agatek kontatu digunez, urtean bost irteera egiten dituzte: "Eguna pasatzera joaten gara Bizkaia, Nafarroa, Araba edota Iparraldera. Egun hauetan partehartzea ziurtatua dago, autobus osoa betetzen da. Duela bi urtera arte irteerak Santueneko egoitzarekin batera antolatzen genituen, baina jende asko joan gabe gertatzen zen, eta beraz, bakoitzak bere aldetik antolatzea erabaki genuen".

Ikastaroetan aukera ederra

Irteerez gain, ordea, ikastaro askotan parte hartzeko aukera ere badu Aginagako jendeak. Konparazio batera, pintura, gantxilo eta makramea, bolilozko enkajea eta sukaldaritza ikastaroak dituzte martxan. Pintura klaseak dira

zaharrenak, orain dela sei urte ematen dira. Gantxiloa, makramea eta bolilozko enkajea, berriz, iaz hasi ziren. Eta aurten sukaldaritza hasi dira, eta gabonetatik aurrera tela pinturako ikastaroa hasiko da. Agatek zera zehazten du: "Ikastaro hauek bazkideentzat dira, baina tokia baldin bada dago, nahi duenarentzat dago tokia. Hori bai, lehenetsuna bazkideak dute".

Ikastaroez gain, larunbatero ileapindegia antolatzen dute Ines Kaminorekin, eta izugarriko arrakasta izaten omen du. Horretaz gain, hilean behin ere tentsioa hartzerako etortzen omen dira bolondresak.

Ikastaro hauetan jende berdintsuak parte hartzen badu ere, oso gustora etortzen dira bertara: "Etxean bakarrik egon beharrean kafetxo bat hartu eta lagunekin egotea alde ederra da. Guk behintzat primeran pasatzen dugu!"



Arrate Zahar egoitzako ekitaldi arrakastatsuenak irteera izan ohi dira. Argazkian, Aurtengo maiatzean Madrilera egindako bidaiak.

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 37 08 78

20170
USURBIL



URTINEA LORATEGIA

Lore eta lore landareak

San Esteban
Tlf. 36 22 55

Txalupa bat egitearen abentura

Iñaki Errekondo, Iñaki Rekondo eta Luis Mari Bengoetxeak lan ederra hartu dute. Egurrezko txalupa bat egiten ari dira, eta ez nola nahikoa gainera. Urtebete daramate sei metro eta erdiko luzera eta metro eta laurogei zentimetroko zabalera duen txalupa egiten. Oraingo, Zubietako Errekondo zerrategian dago etorkizunean txalupa izango dena, baina Kontxako estropadetarako uretaratzeko asmoa dute.

Iazko udaratik dator guztia. Bazkari edo afari batean egurrezko txalupa bat egiteko ideia ateratzen zen mahaira. Ez zekiten txalupa bat nola egiten zen, ez zekiten nondik hasi, baina Iñaki Errekondok txalupak egiten zituen bat ezagutzen zuenez, harengana jotzea erabaki zuten. "Txalupa egiteko ideia hura egi bihurtu asmoz, Hondarribiko untzigile batekin jarri ginen harremanetan. Txalupa bat nola egiten zen jakin nahi genuen, orduan ez baikenekien ezer. Honek esplikazioak eman ondoren, txalupa baten maketa eta planoak eman zizkigun, eta txalupa egiten hastea erabaki genuen".

Maketa eta planoak lortu ondoren, orain dela urtebete hasi ziren txalupa egiten. Luis Mari Bengoetxea, Iñaki Errekondo eta Iñaki Rekondo dira txalupa egiten ari direnak, eta larunbat goizetan aritzen

dira. Iñaki Errekondoren esanetan, nahikoa ondo daramate larunbat goizetako lan hau. "Zubietako gure zerrategian ari gara txalupa egiten, eta larunbat goizetan biltzen gara. Oraingo, oso gutxitan hutsegin dugu. Nahikoa serio daramagu txalupa egitearen lan hau. Momentu honetan, txaluparen oinarria eginga dago, kostillak jarri dizkiogu eta gus-tora ari gara lanean. Hasieran, poliki egiten genuen lana, denbora asko behar izaten genuen, baina orain, puntua hartu diogunez, azkarrago egiten dugu lana".

Txalupa bat egitea horrenbeste kostako zitzaienik ez zuten espero. "Txalupa txiki bat egitea zen gure hasierako asmoa, arraunekin ibiltzen den horietakoa. Hala ere, untzigileak txalupa haundi baten

maketa zeukan, eta maketa berdinarekin ezin zen untzi txikiagoa egin, egonkortasuna galtzen baitzuen". Horregatik, sei metroko luzera eta ia bi metroko zabalera duen egurrezko txalupa egiten hasi ginen. Jende ugari sartzeko tokia izango du eta motorraren ibiliko da gainera".

Beste urtebete beharko dute txalupa amaitzeko. 1998. urteko Kontxako estropadetarako amaitua izatea da beren asmoa. Hala ere, txalupa uretaratzean non utziko duten pentsatzen hasiak dira. Luis Mari Bengoetxeak Orioko portu berrian jarriko lukeela dio barrezka, baina Orioko zubi parean txokoren bat prestatzen hasi beharko dutela garbi dute.

Josu Aranberri



Ekaitze

Bideo eta Argazki

Usurbil

tlf 36 14 87

oiartzun

SALTXIPI



Txokoalde, z/g
Usurbil

Tlf. 36 11 27 - 37 10 94

Lehiaketa

Ate haundi hau ere herrian topatu dugu eta aurrera jarraitzen duen bide hori ere bai. Baita dakizue **nongoa den sarrera hau?**

Erantzuna baldin badakizue, denborarik galdu gabe zuzendu Kale Nagusia 37an daukagun buzoira. Bi pertsonentzako afaria zozketatuko dugu asmatzaileen artean, oraingoan **Tragoxka** tabernan. Animo eta zorte on!





Kintin Seguiolari egokitu zitzaion **Sekaña** jatetxe-ko afaria. Lehenbailehen joango omen da, "behin egokitu ezkerro, ez gara itzaroten geldituko, bada- ezpada ere...".

Oraingo honetan erantzun asko jaso ditugu eta denak zuzenak gainera. Aginaga ondo ezagutzen duzue, bai. **Victoriano Furundarena** irabazleak dioen bezala "Eizan sartu eta Ikutza-enean ateratzen da Enaluzeko erriberara joateko".

Erriberatik aurrera Txokoaldera segitu ezkerro, **Zumeta** jatetxera iritsiko zara, eta beste lagun batekin afari ederra egiteko zortean zara! Zorionak!

Komikia



Igandetan ganba-ziri mundialak!

PINTXO BEREZIAK

Aritzeta, 2 Tel.: 37 10 42



A genda

AZAROAK 14 ostirala

- **Larrua Truk taldeak kontzertua** eskainiko du **Gasteizen**.

AZAROAK 15 larunbata

- **Presoen aldeko harpidetza afaria** egingo da Aitzaga elkartearen, arratsaldeko 20.00etan.
- **Larrua Truken kontzertua** entzuteko aukera izango dugu **Aulestian**.

AZAROAK 17 astelehena

- **Euskal Herria askatu!**-ren konzentrazioa arratsaldeko 20.00etan errotondan.

AZAROAK 19 asteazkena

- **Andatza Kirol Elkarteak diapositiba emanaldia** antolatu du. **"Pirineotako hiru haundiak mendiko eskiaz"** izenburuko saioa eskainiko dute. Hizlariak Batis Goikoetxea eta M. Angel Otxoa izango dira. Udarregi Zaharrean, arratsaldeko 20.00etan.

AZAROAK 23 igandea

- **Andatza Kirol Elkarteak irteera antolatu du Larrun mendira.** Irteera goizeko 8.00etan frontoi atzetik.
- **Udalak eta herriko zenbait tabernek antolatuta, Alaitz eta Mainerrek dantzaldia** eskeiniko dute. Arratsaldeko 18.00etan herriko plazan.

AZAROAK 24 astelehena

- **Euskal Herria askatu!**-ren konzentrazioa arratsaldeko 20.00etan errotondan.

OHARRAK

- ✓ **Guraso eskolak Lehen laguntzen ikastaroa** antolatu du. Izena emateko epea azaroaren 18

Zumarte Musika
Eskolako ikasleek Zezili Deunaaren omenez, azaroaren 21ean kontzertua eskainiko dute Salbatore Parrokian arratsaldeko 20.00etan.



izango da. Udarregi zaharrean. Goizez 11.00etatik 12.00etara. Arratsaldez 17.00etatik 18.00etara. **Ikastaroa azaroaren 25ean** izango da Udarregi zaharrean 9.30etatik 12.30etara. Dohainik eta talde kopuru mugatua izango da.

- ✓ **Guraso eskolak partaidetza zabaldu** nahi du. Zure izaera hobea egotzi eta aberastu nahi baduzu; zure seme-alaben heziketaz arduratu nahi baduzu; zure egitasmoak besteekin eta besteentzat zabaldu nahi badituzu, jarraituz kontaktuan beraiekin. Deitu Milagros: 36 41 80 edo Txaro: 36 13 83.
- ✓ **Belarrifakoa galdu da.** Urrezkoa, izkina txuria eta perlarekin. Santu guztien egunean galduta. Hilerritik frontoirako bidean edo frontoian. Telefonoa: 36 52 61.
- ✓ **Usurbilgo Lanbide Hastapeneko ikastetxeak izen emate epea berririki egiten du.** 16 eta 19 urte tarteko gazteak eta ikasten ez daudenak edo langabezian daudenak. Automobilaren mekanika, automobilaren txapa eta pintura, iturgintza eta mintegiak eta lorategiak espezialitateak aukeratu daitezke. Epea, azaroaren 17 arte. Interesatuok udaletxera etorri eta monitore sozio-laboralaz galdetu.

✓ **EHNE sindikatuak** langabetuei zuzendutako **"Nekazaritza eremu eta garapenari buruzko ikastaroa"** antolatu du urriaren 23tik azaroak 14ra bitarte. **Ikasle kopurua mugatua** da, eta **dohainekoa**. **Tolosan** emango da. Informazio gehiago 65 35 90 edo 65 35 67 telefonoetan. Xabier.

- ✓ **Etxe bat alokatzen** da, altzariak eta guzti. Kontzejuzarra kalean. Deitu 37 14 95 telefonora.
- ✓ **Garajea salgai** daukat Kaleberrin. Interesatuok, deitu 36 41 80 telefonora.
- ✓ **Pisu bat alokatzeko** Bilboko alde zaharrean. Unibertsitateko autobusetik gertu dago. 37 31 17 Uxo.
- ✓ **Garajea salgai** daukat Galtzaragañan. 33m². Kostu prezioan. Telf. 37 18 27.

LANPOSTUAK

- ✉ **Emakume batek jabetxeren batean platerak garbituko lituzke.** Aste egunean goizez eta igandetan egun osoz. Telf 36 57 81.
- ✉ **Usurbilgo Udalak podologia zerbitzuaren gestioa** lehiaketara ateratu du. Izena emateko epea abenduaren 11an amaitzen da. Informazio gehiago udaletxean edo GAOko 211. zenbakian.



"apelliduetan abizendu"
Guk lagunduko dizugu, zatoz guregana!

Noaia!!
HARRAROTZETAKARI


EUSKARAREN AHOLKU
BATZORDEA


EUSKAL HERRIAN
EUSKARAZ
84 postakutza
Usurbil

Kirol agenda

AZAROAK 14 ostirala

- Eskuz 4 t'erdiko txapelketako partiduak. Gaueko 8.00etan hasita.

AZAROAK 15 larunbata

- **Eskubaloi partidua** jubenil mailan (n): **Usurbil- Hernani**. Arratsaldeko 16.30etan Oiardo kiroldegian.
- Bigarren nazionaleko **eskubaloi partidua** (2N): **Usurbil- Deusto**. Arratsaldeko 18.00etan Oiardo kiroldegian.
- **Eskubaloi partidua** jubenil mailan (m): **Ereintza- Usurbil**. Oreretako kiroldegian.
- **Eskubaloi partidua** kadete mailan (m): **Ereintza- Usurbil**. Oreretako kiroldegian.
- **Futbol partidua** emakumezkoen errejional mailan (n): **Zumaiako- Usurbil F.T.**
- **Futbol partidua** jubenil mailan (m): **Usurbil F.T- Aloña Mendi**. Harane futbol zelaian
- **Areto futboleko partidua** (m): **Axular- Xabier Edaritegia** De Mons kiroldegian
- **UGA-k antolatutako frontenis txapelketa**. Arratsalde partean.

AZAROAK 16 igandea

- **Futbol partidua** kadete mailan Andoainen(m): **Euskalduna- Usurbil F.T.**
- **Saskibaloiko partidua** (M): **Martiko Amigos- Usurbil S.T.** Irungo Urazu frontoian, eguerdiko 12.00etan.

- **Hondartzako futbol partidua** Kontxako hondartzan(m): **Aginaga Sagardotegia- Basmo**.

AZAROAK 21 ostirala

- **Aitzaga Elkarteak antolatutako eskuz 4 t'erdiko txapelketa**. **Finalaurdenak**. 20.00etatik aurrera.
- **Areto futboleko partidua** (m): **Xabier Edaritegia- Lasarte kirolak**. Oiardo kiroldegian 8.45etan hasita.

AZAROAK 22 larunbata

- **Eskubaloi partidua** kadete mailan (m): **Usurbil- Elgoibar**. Arratsaldeko 16.30etan.
- **Eskubaloi partidua** jubenil mailan (m): **Usurbil- Elgoibar**. Arratsaldeko 18.00etan.
- **Futbol partidua** erregional mailan (m): **Gwendoline.- Usurbil F.T.** Irungo San Jose Obrero n
- **Futbol partidua** (n): **Usurbil F.T.- Antoniano**. Harane futbol zelaian
- **Futbol partidua** kadete mailan (m): **Usurbil F.T.- Danena**. Harane futbol zelaian
- **Futbol partidua** jubenil mailan (m): **Arretxabaleta Almen.- Usurbil F.T.**
- **UGA-k antolatutako fronteniseko txapelketa**. Arratsalde partean.

AZAROAK 23 igandea

- **Saskibaloiko partidua** Oiardo kiroldegian. **Usurbil- Haurtzaro** Goizeko 10.00etan.

EMAITZAK

FUTBOLA

Azaroak 1-2

Usurbil F.T **3** - Urnieta **1** (2.R)
Aloña Mendi **4** - Usurbil F.T **0** (n.)
Usurbil **0** - Martutene **1** (ju.)
Amaroz **3** - Usurbil F.T **3** (ka.)

Azaroak 8-9

Alde Zaharra **1** - Usurbil F.T **6** (2.R.)
Usurbil F.T **1** - Almen **0** (n.)
San Patrizio **6** - Usurbil **4** (1.ju.)
Usurbil **6** - Orioko **0** (2.ka.)

ESKUBALOIA

Azaroak 1-2

Usurbil **25** - Ereintza **22** (2.N.)
Usurbil **25** - Elgoibar **20** (ju.n)

Azaroak 8-9

Pulpo **29** - Usurbil **30** (2.N.)
Usurbil **28** - Pulpo **27** (ju.m)
Usurbil **11** - Pulpo **21** (ka.m)
Leizaran **12** - Usurbil **17** (ju.n)

SASKIBALOIA

Niessen **101** - Usurbil S.T **38**
Usurbil S.T. **36** - Alde Zaharra B **89**

ARETO FUTBOLA

Xabier Edar.. **2** - Aloña Mendi **2**
Xabier Edar.. **3** - Ondarre **2**

HONDARTZAKO FUTBOLA

Aginaga Sagar. **0** - Bocatta **1**

ERREBOTEA

Endika Abril. Finala
Baiona I- Ustaritz, **13-8**
Gipuzkoako txapelketa. Finala
Behar Zana I- Zubieta I, **13-0**

Laburdurak

R.: errejionalak ka.: kadeteak
N.: nazionala n.: neskek
ju.: jubenila m.: mutilak



BAZKIDE TXARTELA

5000 PEZETA URTE OSORAKO

Izena: _____
1.Abizena: _____
2.Abizena: _____
Helbidea: _____
Herria: _____
Tfnoa: _____
Kontu Korrontea (20 digito): _____

H A M A B O S T E R K A R I A
noaua
i

Usurbilgo

OFIZIOAK

zure eskura dituzu

ITURGINTZA

LATAILLADE, IÑAKI

Ariztitxo kalea, 8
Atxegalde
☎ 36 33 48 - 36 26 35

ORBEGOZO, JAVIER

Iturgintza, gasa eta berogailuak
Bizkarre kalea, 1 - 1.esk.
Kaleberri
☎ 37 29 37 - 36 59 26

OSTAPE

Ostape etxea
Kalezar
☎ 36 16 95

PORTULARRUME, XEBERO

Kale Nagusia, 10
Kaleberri
☎ 36 46 37

ROIZ, PEDRO

Erreka-txiki kalea, 1 - 1.C
Kaleberri
☎ 36 31 74

ELEKTRIZITATEA

IZAGIRRE, MIKEL

Goiz-Argi etxea, 37
Kalezar
☎ 36 50 95

ARGILAN

Instalakuntza elektrikoak
Kontzeju zaharra, 13
Kaleberri
☎ 37 02 74

IGELTSERITZA

AIZPURUA, JOSE

Muna Lurra kalea, 20 - 1.B
Olarriondo
☎ 36 37 67

Pintore kalea, 1 - 3.A

Lasarte-Oria
☎ 36 17 83

ARANZAZISTROKI, ANDRES

Igeltseritza eta pintura
Aldapatxo etxea
Kalezar
☎ 36 24 71 - 36 05 50

ELORZA, JOSE ANTONIO

Pintaketa, igeltsua eta eskaiola
Galtzaragaña 2 - 2.B
☎ 37 34 70

ERRAZKIN C.B

Kale nagusia, 1
Kaleberri
☎ 37 26 79

Kontzeju zaharra kalea, 1

Kaleberri
☎ 36 51 25

ZABALA, JOSE MARI

Beheko kalea, 8 - 3.esk.
Atxegalde
☎ 36 59 39

ARROZTEGIAK

BEREZIARTUA

Egurrezko eta aluminio-egurrezko
leihoak
Izpira etxea
Aginaga
☎ 37 15 71 - Faxa 36 01 59

GONSABI S.L.

Ugarte, 9
Kalezar
☎ 37 10 61

IBARGOEN, JOSE RAMON

Neurriko altzariak
Errotaberri kalea, 3 - Osinalde
☎ 36 14 48 - 36 31 24

IKUTZA, JOSE MARI

Ugarte, 4
Kalezar
☎ eta faxa 37 12 21

MANSO, ABILIO

Ugarte, 10
Kalezar
☎ 37 05 73

OLASAGASTI, KETXU

Gurutze etxea
Kaleberri
☎ 36 12 13

ESKAIOLA

NORIEGA, EUGENIO

Erdiko kalea, 12
Atxegalde
☎ 36 56 65

Ofizioen gida honetan azaldu nahi baduzu, deitu! ☎ 36 03 21